


Diskoak

IKER BARANDIARAN



Malatu.
Malatu.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 53'07".
10 euro.

Azkeneko ijitoak ote dira?

IZENEAN kutsu afrikarra daukan talde honetako kideak ehunka abenturatan (Mugalaris, Anastua, Potato, Gasteiz Big Band eta beste...) ibilitako *pajaro*-ak dira eta batez ere Gasteizen eta Leintz-Gatzagan dituzte euren habiak. Kontrastez betetako eskaintza ekarri dute, Zumetaren estilora Vicen Herмосoren ilustrazio eder batzuen barruan ezkututzen dena. Bada nire ustez (beraiek ez daude ados) jazzaren *tempo* eta jantzirik, baita swing usaine-

ko piezarik ere. Izenean tatuatuta daramaten Afrika ere nonbait ageri da perkusioetan; eta euskal folka arnas-teaz gain, latinotik ere edaten dute tar-teka. Bestalde, doinu ijito-tronpetariak ere badituzte, eta gai dira instante bakarrean abesti xuxurlatu batetik parrandara igarotzeko. Euskarazko hitzetan, malenkonia, bizi-poza eta gertutasuna.

www.myspace.com/malatu jazz

Mikel Garcia eta Iñaxio Gabilondo - Malatu

«Askatasunaren musika egiten dugu»

Malatu baserri bat da berez, baina izenak Afrika eramaten nau. Talde honekin euskal folketik abiatuta urrun eraman nahi duzue entzulea?

Mikel Garcia: Ez dugu horretan pentsatu ere, entzulea nonbaitera eramatea. Guretzat egindako musika da, gero zabaltzen duguna inongo pretentsio barik.

Iñaxio Gabilondo: Musika sortu da nahi gabe, bakoitza musika mundu oso desberdinetatik gatozelako. Beste leku batzuetako doinuak ere agertzen dira, eta euskaraz abes-teak ere hemengo ukitua gehitzen dio. Euskal Herritik mundura, baina euskaldun moduan, hori zainduta.

Joera oso desberdineko kideak bildu zarete. Zertan egiten duzue bat Malatun?

M.G.: Musikari begiratzeko ikuspuntu horretan egiten dugu bat, askatasunaren musika egiten dugu. Melodia batzuk eramaten ditugu eta horren gainean bakoitzak botatzen du daukan onena.

Xuxurlatutako kanta barrurago sartzen dira?

I.G.: Intentzioa hori da xuxurlatzen



duzunean, baina zuk sentitzen baduzu zerbait abesten duzunean, modu batean zein bestean, hori transmititu egiten da, heltzen da.

Animaliek protagonismo handia dute diskoan: karramarroak, sugea... Ama Lurrean kendu diegun protagonismoa eman diezue?

M.G.: Bai. Umeek ere ulertzeko moduan eginda daude. Barruan daramagun umearentzat metaforak dira. Beti pentsatzen dugu ez garaela animaliak eta ez dakit zergatik.

I.G.: Umeekin konexio handia egoten da kanta horiekin.

Mikel Laboa barruan daramazuela esango nuke. Baina zein da zuen ustez ahaztuko ez duzuen Laboaren irakaspena?

I.G.: Niretzat hegan egiteko konpainia, laguna da. Eta zuri Malaturen kanta bat entzuteak Laboa gogoratzen badizu, kristoren sententzia da.

M.G.: Oso urrun zegoen beste giza-kiongandik, aurrean, azpian, goian... Ez dakit non. Mezu politik utzi zizkigun, bihotzera heltzen direnak. Bera sendagilea zen, eta hori zen bere bokazioa, kantatuz ere sendatzen zuelako. ■